PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua: 10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
Atala: 1010 - Kultur Ondarearen Zuzendaritza Nagusia
Programa: 110 - Ondare Historiko-Artistikoko, Bildumetako eta Museoetako Zerbitzua
Funtzionala: 336 - Ondare historiko-artistikoaren babesa eta kudeaketa

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoako ondare historiko-artistikoa, arkeologikoa, etnografikoa eta ondare higigarria kontserbatzea, ikertzea, dokumentatzea eta zabaltzea, haren babesa, irisgarritasuna eta etorkizuneko belaunaldientzako transmisioa bermatuz.
Zerbitzuak eginkizun hori gauzatzen du kultura-ondasunak kudeatuz, Gordailuan zaindutako bildumak kontserbatuz, museoekin eta lurraldeko gainerako eragileekin lankidetzan jardunez, eta ondarearen ikerketa eta zabalkundea sustatuz. Horrela, iragan komunaren ezagutza sendotzen, nortasun kolektiboa indartzen eta herritarrek Ondarea ondasun publiko gisa babesten eta baloratzen duten inplikazioa sustatzen laguntzen du.

Egoeraren diagnostikoa:

Foru-aldundiek kultura-ondarea babestu, kontserbatu, ikertu eta zabaltzeko eskumenak dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren, Lurralde Historikoei buruzko Legearen eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen arabera.
Azken hamarkadetan aurrerapen handiak egin dira kultura-ondarea kontserbatzeko, ikertzeko eta zabaltzeko lanetan, baita gizarteak ondarearen balioari buruz duen kontzientziazioan ere. Hala ere, erronka garrantzitsuak daude oraindik, besteak beste, ondarea zaintzearen garrantziari buruzko herritarren sentsibilizazioa indartzea, ondarea babesteko arau-esparrua garatzen jarraitzea, administrazioen eta ondarearen arloko eragileen arteko koordinazioa hobetzea, eta irisgarritasunaren, digitalizazioaren eta jasangarritasunaren arloko erronka berriei erantzutea.
Testuinguru horretan, Ondare Historiko-Artistikoko, Bildumetako eta Museoetako Zerbitzuak Gipuzkoako ondare historiko-artistikoa, arkeologikoa, etnografikoa eta higigarria zaindu eta kudeatzen du, Gordailuan gordetako bildumak eta Foru Aldundiaren museo-sarea barne. Era berean, ondarearen ikerketa, kontserbazioa eta zabalkundea sustatzen ditu, herritarrengana hurbiltzeko eta haren ezagutza eta balorazioa indartzeko.

Beharraren deskribapen xehatua:

Ondare Historiko-Artistikoko, Bildumetako eta Museoetako Zerbitzuak baliabide ekonomiko eta giza baliabide nahikoak behar ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak kultura-ondarearen babes, kontserbazio, ikerketa eta zabalkundearen arloan dituen eskumenei behar bezala erantzuteko.
Beharrezkoa da ondarearen babesa eta kontserbazioa indartzea, ikerketa eta ezagutzaren zabalkundea sustatzea, herritarren ondarearekiko sentsibilizazioa areagotzea eta ondarea lurraldearen garapen kultural, sozial eta ekonomikorako baliabide gisa sendotzea.
Era berean, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzarekin, udalekin, museoekin eta ondarearen arloko gainerako erakunde eta eragileekin lankidetza indartzea, kudeaketa koordinatu eta eraginkorra bultzatuz.
Gordailuan zaindutako bildumak eta Foru Aldundiaren museoak behar bezala kontserbatu eta balioan jartzeko, beharrezkoa da azpiegituretan, ekipamenduetan, kontserbazio-, ikerketa- eta zabalkunde-programetan nahiz zerbitzuaren behar eta erronka berriei erantzuteko giza baliabideetan inbertitzen jarraitzea.

Nori zuzendua:

Ondare Historiko-Artistikoko, Bildumetako eta Museoetako Zerbitzuaren jarduera ikertzaileei, ondarea eta museoak kudeatzen dituzten pertsona eta erakundeei, administrazio publikoei eta sektoreko profesionalei zuzentzen zaie. Era berean, herritar guztiak ditu hartzaile, museoen, Gordailuaren eta zabalkunde-ekimenen bidez kultura-ondarea ezagutarazi, kontserbatu eta gizarteratzeko.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Zerbitzuak giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak, laguntza teknikoak, baliabide teknologikoak eta aplikazio informatikoak ditu, baita Gordailuan gordetako funtsak ere. Gainera, ondarearen kontserbazioan eta zaharberritzean espezializatutako lantaldea du, beste erakunde batzuei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematen diena.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

-Gipuzkoako Foru Aldundiak ondare historiko-artistikoaren, arkeologikoaren, etnografikoaren eta higigarriaren babes, kontserbazio, zaharberritze, ikerketa eta zabalkunde arloan dituen eskumenak gauzatzea.
-Babestutako kultura-ondareari buruzko txostenak eta baimenak ematea, esku-hartzeen jarraipena egitea eta ikuskapen-lanak gauzatzea.
-Gordailuan zaindutako bildumen kontserbazioa, dokumentazioa, kudeaketa eta balioan jartzea.
-Katalogoa prestatzea eta eguneratzea, linean kontsultatu ahal izateko.
-Kultura-ondarearen arloko dirulaguntzak eta laguntzak kudeatzea.
-Jardunaldiak, erakusketak, mintegiak, bisita gidatuak eta argitalpenak antolatzea, ondarea zabaltzeko.
-Museoekin eta gainerako kultura-erakundeekin lankidetzan jardutea erakusketa- eta zabalkunde-proiektuetan.
-Kontserbazio-planak eta -protokoloak garatu eta ezartzea, bildumen Larrialdi Plana barne.
-Administrazioei, erakundeei eta partikularrei kultura-ondarearen arloko aholkularitza teknikoa ematea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

-Kultura-ondarearen arloko txosten teknikoak eta baimenak.
-Ondarea kontserbatzeko, zaharberritzeko eta ikertzeko dirulaguntzak eta laguntzak.
-Administrazioei, erakundeei eta partikularrei emandako aholkularitza teknikoa.
-Gordailuko funtsak, katalogoa eta datu-basea kontsulta eta ikerketarako.
-Ikerketarako baliabideak eta dokumentazio-zentro espezializatua.
-Jardunaldiak, mintegiak, erakusketak, argitalpenak, bisita gidatuak eta zabalkunde-jarduerak.
-Ondarea zabaltzeko baliabide digitalak (lineako katalogoak, bisita birtuala, podcastak eta bestelako eduki digitalak).

Programaren arau esparrua:

-Kultura-ondarearen, museoen eta kontserbazioaren arloko nazioarteko hitzarmenak, gutunak eta gomendioak (UNESCO, ICOMOS eta ICOM).
-6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
-7/2006 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskadiko Museoena.
-234/1996 Dekretua, urriaren 8koa, ustezko arkeologia-eremuei buruzkoa.
-306/1998 Dekretua, azaroaren 10ekoa, sailkatutako eta inbentariatutako kultura-ondasunen aurri-egoeraren deklarazioari buruzkoa.
-341/1999 Dekretua, urriaren 5ekoa, interes arkeologiko eta paleontologikoko ondasunak lekualdatu, entregatu eta gordailutzeko baldintzei buruzkoa.
-214/1996 Dekretua, uztailaren 30ekoa, hiri-ondarea eta eraikitako ondarea birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa.
-Kultura-ondarearen gaineko jarduketei aplikatu beharreko ingurumen-ebaluazioaren arloko araudia.
-Kultura-ondarearen eta Gipuzkoako museo-zentroen arloko dirulaguntzak arautzen dituzten foru-dekretuak.

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Behar artistiko eta kulturalei erantzutea, egungo ekosistema indartzeko eta ekosistema kultural berriak sortzeko ahaleginari eutsiz eta euskal kultura sustatuz.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Gordailuko web katalogoak izandako erregistro kopuru akumulatiboa	Kopurua	>=	5.300,00	4.000,00	5.000,00	6.000,00

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Ikertzaileen lanegun kopuru akumulatiboa Gordailuan.	Kopurua	>=	210,00	248,00	200,00	500,00
Gordailuaren presentzia komunikabideetan. berri kopuru akumulatiboa.	Kopurua	>=	250,00	140,00	250,00	700,00
Arlo artistiko eta kulturalaren ekosistema indartzeko mahai sektorial kopurua	Kopurua	>=	4,00	4,00	5,00	5,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Herritarrek kultura- eta arte-adierazpenekiko jakin-mina eta irekitasuna izan dezaten bultzatzea, bizialdi osoko ikaskuntzaren ideiari lagunduz eta belaunaldien arteko transmisioaren alde.



% 71,13



% 28,87

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**3.617.557,95**	**1.092.770,00**	**22.719,00**	**2027/01/01**	**2028/12/31**	
1.1 Ekintza E.1.-Zentroa kudeatu bere helburuak bete ditzan: Giza eta Ekonomia baliabideak lortu erabilerako protokoloak ezartzeko, eraikina eta bere zerbitzuen mantenimendurako eta bildumen iraupena eta hedapena bermatzeko.	1.627.003,75	1.046.500,00		2027/01/01	2028/12/31	
1.2 Ekintza E.2- Ondare higikorraren zaintza eta hedapenean europa mailan erreferentzia diren entitateekin harremanak abian jartzea.	46.095,85			2027/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza E.3- Bildumen arloa indartu erregistro lanak amaituz eta dokumentazio lanak hobetu web-ean argitaratzeko aukera izanez.	258.204,85	7.500,00		2027/01/01	2028/12/31	
1.4 Ekintza Erreferentziako erakundei eta beste elkarte batzuei dirulaguntzak eman: Aranzadi Zientzia Elkartea, Arkeolan Fundazioa, Barandiaran Fundazioa, ... Erakunde horiek Departamentuarekin ondarearen kontserbazio eta hedapen helburuak partekatzen dituzte.	580.500,00			2027/01/01	2027/12/31	
1.5 Ekintza Ondareari buruzko ikerketak egin: ikerketak (organoak,	274.224,50	37.270,00	22.719,00	2027/01/01	2028/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
erretaulak...) ondarearen datu base handitu; Ondare babestuaren Kontserbazio Plana (higigarria eta higiezina): Piztu Kultura...						
1.6 Ekintza Hedapen ekintzak: Europako Ondarearen Jardunaldien antolaketa; Pirinioetako Burdinaren bidea; Udako Ikastaroak, argitalpenak, ikastaroak...	336.000,00	1.500,00		2027/01/01	2028/12/31	
1.7 Ekintza Ondare balioa duten eraikinetan zaharberritze eta mantentze lanak egin.	353.529,00			2027/01/01	2027/12/31	
1.8 Ekintza Euskal Kultur Ondareari buruzko Legeak babestuko eraikinetan eta indusketa arkeologikoetan, esku hartze egiteko baimenak (foru ebazpenak) eman. Ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren txostenak prestatu.	142.000,00			2027/01/01	2027/12/31	

2. Ekintza lerroa:
Kulturaren eta teknologiaren arteko harremana sustatzea.



% 79,95



% 20,05

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**145.231,00**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
2.1 Ekintza Babestutako ondarean egindako esku hartzen ikuskapena eta jarraipena, arautegiak bete ditzaten bermatzeko, edo bestela zigor erregimena martxan jartzea.	87.000,00			2027/01/01	2027/12/31	
2.2 Ekintza Gipuzkoako ondarean, ofizioz egindako ikerketak eta esku hartzeak. nabarmentzekoa da Arrasateko Gomeztio baserriaren berreraikuntza arkeologikoa, Europako INTERREG laguntzen barruan.	58.231,00			2027/01/01	2027/12/31	

DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko ondare historiko-artistikoaren, arkeologikoaren, etnografiko higiezinaren eta ondare ukiezinaren artapena, ikerketa eta zabalkuntza bermatzea.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Ondare historiko-artistikoa berreskuratu, zaharberritu eta balioan jartzeko emandako laguntza kopurua	Kopurua	>=	74,00	65,00	65,00	65,00
Zenbat eskaera espediente tramitatu dituen Zerbitzuak Euskal Herriko Kultur Ondarearen Legeak babestutako ondare arkitektoniko eta arkeologikoan esku-hartzeko	Kopurua	>=	715,00	400,00	400,00	400,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Euskal Kultur Ondareari buruzko Legeak babestuko ondarea eta Gipuzkoarako interes kultural duen ondarearen kontserbazioa, kontsolidazioa eta hedapena sustatu



% 99,89



% 0,11

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**1.416.779,48**	**1.256.000,00**		**2027/01/01**	**2029/12/31**	
1.1 Ekintza Titulartasun publikoa zein pribatua duen ondare historiko-artistiko eta etnografikoa zaharberritzeko diru laguntzak eman.	1.382.400,00	1.256.000,00		2027/01/01	2029/12/31	
1.2 Ekintza Obrek eragindako indusketa arkeologikoak egiteko dirulaguntzak eman.	31.500,00			2027/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza Programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan edota dirulaguntzetan hizkunta-klausula berrituak txertatu.	2.879,48			2027/01/01	2027/12/31	

2. Ekintza lerroa:

Ondareari buruzko ezagutzak hobetu. Ondarearen kontserbazioarekiko sentsibilizazioa handitu



% 80,00



% 20,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**240.310,00**	**240.310,00**		**2027/01/01**	**2028/12/31**	
2.1 Ekintza Ondare arkeologikoari buruzko ikerketa: indusketak egiteko eta azterketa arkeologikoak egiteko dirulaguntzak.	240.310,00	240.310,00		2027/01/01	2028/12/31	

3. Ekintza lerroa:
Ekintzen ildoak aurrera eramateko, beharrezko kudeaketa : pertsonala, dietak, ordenagailuak

11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK % 30,00

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 70,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**281.883,65**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
3.1 Ekintza Ondare historiko-artistikorekiko ekintzen ildoak kudeatzea, langile propioaren bidez (langileen gastuak; dietak, ordenagailuak...).	281.883,65			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Foru museoetan eta lurraldeko gainerako museoetan gordeta dagoen ondare higigarria (arkeologiko, etnografiko, artistitiko eta industriala) artatu, ikertu eta zabaltzea. Ondarearekiko atxikitasuna handitzea.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Gordailutik lurraldeko museo eta aretoetara erakusketak egiteko ateratako piezen kopuru akumulatiboa.	Kopurua	>=	964,00	140,00	250,00	800,00
Gipuzkoako Foru Museoen bisitari kopurua urtero akumulatua.	Kopurua	>=	24.072,00	35.883,00	43.000,00	100.000,00
Museotako dirulaguntzen kopurua	Kopurua	>=	35,00	36,00	35,00	35,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuta dauden museoen bidez kultur ondarea babestu,zaindu eta zabaldu



% 99,93



% 0,07

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**3.965.961,91**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza E.10.1- Helburuak betetzeko bidean egin behar den kudeaketa orokorra; foru museotako ekipamenduen mantenimendutako kontratuak, eraikinetan egin beharreko gastuak; hedapen programetan partehartzea, foru museoen kudeaketaren ikuskapena	439.140,30			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza E.10.2- Foru Museoen Gestio-kontratuak: Igartubeiti Museoa, Zumalakarregi Museoa eta Untzi Museoa	1.048.021,94			2027/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza E.10:3- GFAk zuzendaritzako erakundeetan parte hartzen duen edo GFAko ondarea gordetzen duten Lurraldeko Museoei zuzendutako laguntza	1.115.867,94			2027/01/01	2027/12/31	
1.4 Ekintza E.10.4- Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden museo zentroei diru-laguntzak ematea(entitate publikoak, pribatuak eta partikularrak)	1.311.622,79			2027/01/01	2027/12/31	
1.5 Ekintza E.10.5- Foru Aldundiko itsas ondare higikorra (itsasontziak) zerrendatu, egokitu eta zaharberritzeko jarduerak.	48.429,46			2027/01/01	2027/12/31	
1.6 Ekintza Programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan edota dirulaguntzetan hizkuntza-klausula berrituak txertatu.	2.879,48			2027/01/01	2027/12/31	

GENERO BERDINTASUNA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

Beharraren deskribapen xehatua:

Ondare Historiko-Artistikoaren, Bildumen eta Museoen Zerbitzuak genero-ikuspegia ondarearen kudeaketan, ikerketan eta hedapenean txertatzeko lan egiten du, emakumeek kultura-eragile gisa duten presentzia, parte-hartzea eta ikusgarritasuna indartuz eta herritarrek kulturaren arloan berdintasunez parte har dezaten bultzatuz.
Kultura-ondasunen kontserbazioaren eta zaharberritzearen esparruan, emakume profesionalen presentzia handia nabarmentzen da, diziplina horren izaera historikoki feminizatuaren ondorioz; egoera hori Gordailuan egiten diren zerbitzu profesionalen kontratazioetan ere islatzen da.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Ondare Historiko-Artistikoko, Bildumentako eta Museoetako Zerbitzuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskara Planean parte hartzen du, hizkuntza-normalizazioaren arloan ezarritako helburu eta konpromisoak bere gain hartuz eta bere eskumen-esparruan euskararen presentzia eta erabilera sustatuz.
Zerbitzuak euskararen presentzia indartzeko lan egiten du ondarearen kudeaketa, kontserbazio, ikerketa eta zabalkundearen esparruan, hizkuntza-desorekak murrizten eta euskarazko kalitatezko kultura-eskaintza bermatzen lagunduz.
Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen dituen museo eta ekipamenduetan aurrerapauso handiak egin dira hizkuntza-berdintasunerantz, euskara komunikazioan eta herritarrekiko harremanetan bermatuz. Era berean, Gordailuak euskara ohiko lan-hizkuntza gisa sendotzeko lan egiten du. Hala ere, zenbait arlo teknikotan euskaraz lan egiteko gaitasuna duten profesional eta enpresa espezializatuen eskuragarritasun mugatuak zailtasunak sortzen ditu oraindik.

Kategoria	Nola
6.- Hizkuntza-klausulak	6.- Hizkuntza-klausulak

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Ondare Historiko-Artistikoko, Bildumetako eta Museoetako Zerbitzuaren jarduerek bat egiten dute 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH), bereziki 11. GJHarekin (Hiri eta komunitate jasangarriak) eta 16. GJHarekin (Bakea, justizia eta erakunde sendoak).
Zehazki, Zerbitzuaren jarduera lotuta dago kultura-ondarea babestu eta zaintzera bideratutako 11.4 xedearekin, erakunde eraginkor, arduratsu eta gardenak sustatzen dituen 16.6 xedearekin. Ondarea kontserbatu, ikertu eta zabaltzearen bidez, eta kultura-eragileekin elkarlanean jardunez, Zerbitzuak Gipuzkoaren garapen jasangarrian laguntzen du.

Kuantifikazioa: 12.256.803,99 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	11-Hiri eta komunitate jasangarriak Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.	**8.550.919,18**	**2.017.768,00**
Helburua	11.4 - Gipuzkoako kultura-, natura- eta historia-ondarea babesteko eta zaintzeko ahaleginak areagotzea.	8.550.919,18	2.017.768,00
	Ekintza lerroak		
	Euskal Kultur Ondareari buruzko Legeak babestuko ondarea eta Gipuzkoarako interes kultural duen ondarearen kontserbazioa, kontsolidazioa eta hedapena sustatu	1.413.900,00	1.256.000,00
	Ondareari buruzko ezagutzak hobetu. Ondarearen kontserbazioarekiko sentsibilizazioa handitu	192.248,00	192.248,00
	Ekintzen ildoak aurrera eramateko, beharrezko kudeaketa : pertsonala, dietak, ordenagailuak	84.565,10	
	Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuta dauden museoen bidez kultur ondarea babestu,zaindu eta zabaldu	3.963.082,43	
	Herritarrek kultura- eta arte-adierazpenekiko jakin-mina eta irekitasuna izan dezaten bultzatzea, bizialdi osoko ikaskuntzaren ideiari lagunduz eta belaunaldien arteko transmisioaren alde.	2.781.008,15	569.520,00
	Kulturaren eta teknologiaren arteko harremana sustatzea.	116.115,50	
16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	16-Bakea, justitzia eta instituzio sendoak Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	**197.318,55**	
Helburua	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan	197.318,55	
	Ekintza lerroak		
	Ekintzen ildoak aurrera eramateko, beharrezko kudeaketa : pertsonala, dietak, ordenagailuak	197.318,55	
18 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna Kultura eta hizkuntza aniztasuna	**919.486,26**	**571.312,00**

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Helburua	18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa	82.936,46	48.062,00
	Ekintza lerroak		
	Euskal Kultur Ondareari buruzko Legeak babestuko ondarea eta Gipuzkoarako interes kultural duen ondarearen kontserbazioa, kontsolidazioa eta hedapena sustatu	2.879,48	
	Ondareari buruzko ezagutzak hobetu. Ondarearen kontserbazioarekiko sentsibilizazioa handitu	48.062,00	48.062,00
	Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuta dauden museoen bidez kultur ondarea babestu,zaindu eta zabaldu	2.879,48	
	Kulturaren eta teknologiaren arteko harremana sustatzea.	29.115,50	
Helburua	- Eskubide kulturalak bermatzea, gizarte inklusiboetan garapen jasangarrirako herritartasun kulturala eraikitzeko elementu gisa.	836.549,80	523.250,00
	Ekintza lerroak		
	Herritarrek kultura- eta arte-adierazpenekiko jakin-mina eta irekitasuna izan dezaten bultzatzea, bizialdi osoko ikaskuntzaren ideiari lagunduz eta belaunaldien arteko transmisioaren alde.	836.549,80	523.250,00
Guztira		**9.667.723,99**	**2.589.080,00**

Programaren aurrekontuaren laburpena / Resumen del Presupuesto del Programa

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2026	2027	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2028	2029	2030	2031 eta hurrengoak/ 2031 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	558.287,00	575.897,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	3.022.765,00	3.147.895,00	22.270,00				22.270,00
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	2.508.845,00	2.934.210,00	46.500,00				46.500,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**6.089.897,00**	**6.658.002,00**	**68.770,00**				**68.770,00**
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	776.270,00	1.077.062,00	1.024.000,00				1.024.000,00
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	1.412.365,00	1.932.660,00	1.393.310,00	103.000,00			1.496.310,00
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	**2.188.635,00**	**3.009.722,00**	**2.417.310,00**	**103.000,00**			**2.520.310,00**
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	**8.278.532,00**	**9.667.724,00**	**2.486.080,00**	**103.000,00**			**2.589.080,00**

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	201.563,95	374.333,04			201.563,95	374.333,04
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	1.799.153,00	1.348.742,00	22.270,00		1.821.423,00	1.348.742,00
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	814.640,00	2.119.570,00	46.500,00		861.140,00	2.119.570,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**2.815.356,95**	**3.842.645,04**	**68.770,00**		**2.884.126,95**	**3.842.645,04**
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	947.432,00	129.630,00	1.024.000,00		1.971.432,00	129.630,00
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL		1.932.660,00		1.496.310,00		3.428.970,00
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	**947.432,00**	**2.062.290,00**	**1.024.000,00**	**1.496.310,00**	**1.971.432,00**	**3.558.600,00**
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	**3.762.788,95**	**5.904.935,04**	**1.092.770,00**	**1.496.310,00**	**4.855.558,95**	**7.401.245,04**

Sarreren kapituluak / Capítulos de ingresos	2026	2027	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK IMPUESTOS DIRECTOS			
2. ZEHARKAKO ZERGAK IMPUESTOS INDIRECTOS			
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK TASAS Y OTROS INGRESOS			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	22.389,00	22.719,00	22.719,00
5. ONDARE SARRERAK INGRESOS PATRIMONIALES			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**22.389,00**	**22.719,00**	**22.719,00**
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA ENAJENACION DE INVERSIONES REALES			
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital			
8. AKTIKO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras			
Guztira / Total	**22.389,00**	**22.719,00**	**22.719,00**